FLUXU
CIRCUITO DE ARTE CONTEMPORÁNEO EN NAVARRA
ARTE GARAIKIDEKO ZIRKUITUA NAFARROAN

# *Hacia el este*

# Elba Martínez

Pese al frío, tiendo la ropa al sol sabiendo que poco a poco la calentará. Me confío al sol de la tarde y a su corto y dorado recorrido. No hay viento. Espero que llegue la noche para recogerla, como haré al final con la exposición; antes, disfrutar de los días de montaje con humildad para que la intuición coloque a las cosas en su lugar.
Sigo necesitando del arte para valerme frente a la realidad del mundo.

*Día tras día, un viejo león, despacio, muy despacio, se encarama en un delicado equilibrio y comienza a caminar. Un rugido atraviesa entera la sabana. El león ha encontrado al fin sentido a su existencia. Sus pasos son firmes y ajenos a toda prisa. Es así como poco a poco, serio y distante de todo ruido, continúa educando su mirada.*

Tuve y no tuve
entre mis manos
la gota y dulce temporada de las fresas

Los ojos de las flores cerrados

Sola
bajo este roble
paraíso de otro paraíso

*Sucia quedó el agua cuando un veinticinco de noviembre Tony me levantó en brazos del río Ganges. Tibia su temperatura y un amor puro y ajeno al ruido abrió mis párpados al mundo.*

Elba Martínez
Donostia - San Sebastián 28/11/2024

FLUXU, circuito de arte contemporáneo en Navarra, se celebra en diez localidades, e invita a las personas de cada lugar a visitar una instalación artística. Entre las obras expuestas se tiende un hilo –una reflexión sobre *lo común*–, que hace de nexo entre el pasado y el futuro, entre lo natural y lo social, entre lo próximo y lo universal.

En el Centro Cultural Iortia, Elba Martínez (Pamplona, 1974) ha escogido el título *Hacia el este* para una exposición en la que la luz natural procedente del jardín colindante entrará en dialogo con sus piezas de textil, fotografía, escultura y pintura. La muestra incluye obras de distintas etapas de la artista en las que se mantienen rasgos comunes como el uso de la acumulación o de la repetición. Otro componente que atraviesa su trabajo es la escritura con distintas técnicas y sobre diversos soportes de locuciones con vocación de ser dichas o escuchadas. Con este deseo de transmisión oral, Elba Martínez realizará una lectura de una selección de poemas de su libro *El pajarito que encontró su miga*, el 8 de enero a las 18.30.

Alexandra Baurès, *comisaria*

FLUXU

CIRCUITO DE ARTE CONTEMPORÁNEO EN NAVARRA
ARTE GARAIKIDEKO ZIRKUITUA NAFARROAN

# *Ekialderantz*
# Elba Martínez

Hotz egin arren, arropa eguzkitan hedatzen dut, poliki-poliki berotuko duela baitakit. Fedea dut arratsaldeko eguzkian eta haren ibilbide labur eta urrekaran. Ez dabil haizerik. Ilundu ondoren bilduko dut, erakusketa bukatutakoan bilduko dudan bezala; hori baino lehen, muntaketa-egunak apaltasunez gozatuko ditut, intuizioak bere lekuan jarri dezan gauza bakoitza.
Oraindik ere artearen beharra dut munduko errealitateari aurre egiteko.

*Egunez egun, lehoi zahar bat, poliki, oso poliki, oreka hauskor baten gainera igo eta oinez hasten da. Orro batek sabana osoa zeharkatzen du. Lehoiak bere izanari zentzua aurkitu dio azkenean. Urrats irmoan dabil, inolako presarik gabe. Horrela, pixkanaka, serio eta zarata orori axolagabe, bere begirada hezten jarraitzen du.*

Izan nuen eta ez nuen izan
eskuen artean
tanta eta marrubien sasoi gozoa

Loreen begiak itxita

Bakarrik
haritz honen azpian
paradisu baten paradisu

*Zikin gelditu zen ura, azaroaren hogeita bost hartan, Tonyk Ganges ibaitik besoetan altxatu ninduenean. Epela zuen tenperatura, eta maitasun garbi eta zaratarik gabeak betazalak ireki zizkidan mundura.*

Elba Martínez, Donostia 28/11/2024

FLUXU arte garaikideko Nafarroako zirkuitua da, eta hamar herritan ospatzen da. Toki bakoitzeko herritarrei instalazio artistiko bat bisitatzeko deia egiten die. Erakusketako obrek hari bat eratzen dute –*gauza komunei buruzko gogoeta*–, eta hari horrek lotzen ditu iragana eta etorkizuna, natura eta gizartea, hurbilekoa eta unibertsala.

Elba Martínezek (Iruña, 1974) *Ekialderantz* titulua aukeratu du Iortia Kultur Etxeko erakusketarako; bertan, aldameneko lorategitik datorren argi naturala elkarrizketan arituko da bere oihal-, argazki-, eskultura- eta pintura-piezekin. Erakusketan, artistaren hainbat etapatako lanak egonen dira ikusgai. Guztiek ere ezaugarri komunak dituzte, hala nola metaketa edo errepikapena. Haren lana zeharkatzen duen beste osagai bat idazketa da. Askotariko teknikak eta euskarriak erabiliz, esamoldeak idazten ditu, esateko edo entzuteko esamoldeak. Ahozko transmisiorako asmo horrekin, urtarrilaren 8an, 18:30ean, Elba Martínezek *El pajarito que encontró su miga* (Bere mamia aurkitu zuen txoritxoa) liburuko poema batzuk irakurriko ditu.

Alexandra Baurès, *komisarioa*